

Birzentratzea

Udako etenaldiaren bezpera haue-
tan, larriki espantatua dute Abia-
dura Handiko Linearen ondorioz,
distantziak laburtuko direla ikaragarri:
Paristik Bordele 2 oren eta Baiona 3
oren eta erdira egonen dira. Beldurtze-
koa: errazagoa Parisera joatea, Maulera
edo Garazira baino.

Kontuak gogorarazi dit Bordeleko
Victoire-n duela gutxi nola kafea zin-
tzur kontra sartu zitzaidan 2,20 euro
eskatu zizkidatenean. Kafeko. Bi ginen:
4,40 euro. Ez berezia, ez ebakia, kafe
huts simple bat. Eta horra non aldekoak
azaldu zidan, natural-naturalki: "Orain
Bordele Paristik bi ordutara da".

Tupustean galdegin nion ea hango
prezioak zergatik jasan behar ziren.
Ufatu zuen. Horretan utzi genuen, iduriz
arras koherente eta arrazionala behar
zukeen argumentuan zer bait huts egin
nuelakoan. Mollat etxean diru gastatze-
ra joateko enbeiak oro haizatu zizkidan.

Bai, Bordele Paristik bi ordutara da
jada eta baliteke luza gabe baionesei
Bordeleko prezioak aplikatzea: argi ez
lukeenarentzat, kafea garagardotara
konbertituz, kaña 4 eurotan ateratzen
da. Mozkortzeko jornalaren erdia gasta-
tu behar.

Trenaren adibidea interesgarria da,
gaia aztertu duten zenbaitzuek aspal-
dian ondorioztatu baitute trenak kanpai-
netara heltzeak eragin alduketak, on eta
gaitzak, aurrerapen ororen gisan. Gure
kasuan, gure bizimolde eta kulturen
asimilazioa bideratu zuen, garai berean
berekin batera ekarri zituelako beste
aldaketa zenbait eta aitzinamendua iru-
dikatzeko kanpotar kolonizatzailearekin
alderatu eta parekatuz, haren baloreak
hobetsiz, guretako zer den on irakatsiz.
Larزابال, Erdozaintzi, Luku edo Irigoie-
nek ez diote besterik.

Bordele da hurbilago, paristarrentzat
eta Parisetik, eta gu handik hurbilago
bihurtzea du xede, gure bizimoldean,



Bea Salaberri


IDAZLEA
@beatxo

prezioetan, kezka eta gainerateko gu-
zian eraginez. Argumentu bat gehiago
AHTren kontra. Mugikortasuna bultza-
tzean, mugimendu mota jakinak dira
bilatzen, turistenak eta probintzialen
izpirituenak.

Hain zuzen ere, trenbidea aipatzean
mobilitatea aipatzen baitzaigu eta
batez ere "deszentralizazioa". Kontu
erretorikoa da. Bi mende dira, lege eta
dinamika desberdinak direla, hura bera
helburu dutenak. Aurkezten direnean,
aipatzen da botere instituzionala, ba-
liabideak, dena delakoak, deszentrali-
zatzeko asmoa, Paristik, eta helaraztea
probintzietara. Saltzen zaigun moldean,
pentsa dezakegu probintzien probetxu
dela, delegatzearen ideiarengatik, hots,
hemen erabakitze edo garatzeko. Periferiara
helarazten dira botereak, instituzio eta
trenak baina ez guk era-
biltzeko, zentroan denaren luzapena
izateko baizik. Gure kasuan, frantses
botere, kultura, bizimolde, erabakiak,
gure ziloetaraino helarazteko.

Nondik behatzen zaion, deszentraliza-
zioak, zentralitate gehiago suposatzen
du. Mobilitateak, imobilismo gehiago.
AHTak turistifikazio eta akulturazio
gehiago. Deszentralizazioa, ororen
buru, zentralizazioa da, periferiko guzia
erdiguneari beha jartzekoa eta norbera-
renetik deszentratzea da, gurea denetik
urruntzea, ahantziz zer garen eta non.

Preseski, udako parentesi luzexka
ideki aitzin, aipatu beharra dut ekimen
interesgarria, agian guran birzentra-
tzen laguntzekoa: Euskal Herriko Uni-
bertsitate Herrikoia, agorrilaren 11
eta 12an Baigorri antolatuko dituen
Antilletan Bizi jardunaldiak. Hor jorra-
tuko diren gaiak: identitatea, kreoliza-
zioa, kulturen hibridazioa, elkarbizitza,
uniformizazioa, kolonizazioa eta (bis-
tan dena, hain modan baita) "damua".
Dinamika sozialez gehiago jakinez beti
baikara guran zentratuagoak. ■



Antton Olariaga